GARAI ELIZATEKO UDALA

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

GARAIKO UDALAK JABETZAPEAN DUEN "HERRIKO TABERNA"REN ALOKAIRU ETA USTIAPENA ESLEITZEKO IREKIA DEN PROZESUA ZUZENDUKO DUTEN BALDINTZEN AGIRIA.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ASPEKTU OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA, EZARRI BEHARREKO ARAUAK, ESLEIPEN MODUA ETA KONTRATAZIO ORGANOA.

1.1.- Agiri honen xedea Garaiko Udalak jabetzapean duen eta San Migel auzoko 20 zenbakiko etxabean kokatuta dagoen "HERRIKO TABERNA"ren alokairu eta ustiapena prozesu irekian esleitzeko baldintzak arautzea da.

San Migel auzoko 20. zenbakian kokatuta dauden beheko solairuak, sotoak, atzealdeko gehigarriak eta biltegiak osatzen dute alokairuan jarritako eraikina.

Aipatutako kontratua pribatua da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 9. artikuluak ezartzen duen arabera, 2014ko otsailaren 26ko 2017/23/UE eta 2014/24/UE Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarauak Espainiako antolamendu juridikora ekarri dituena.

1.2.- Prestazioa agiri honetan ezarritako baldintzei egokituko zaie.

Edozein xedetarako ere, agiri honek eta bere eranskinek kontratuzko dokumentu izaera izango dute eta izaera hori kontuan hartuta arautuko dira alde guztien eskubide eta betebeharrak. Halaber, esleipendun lizitatzaileak, onespena erakusteko, dokumentuok sinatu beharko ditu kontratua legezko egiteko orduan.

Kontratuak, errentariaren aldetik, honako prestazio hauek barne hartzen ditu:

1. Alokairuan hartuta Herriko Taberna ustiatzea, eraikinaren arloa kontuan hartuta eta kontratuak iraun bitartean.

2. Eraikina eta bertako instalazio zein hobekuntzak mantendu eta zaintzea, baita kontratu izaera duten dokumentuak ikuskatzea ere.

3. Errenta ordaintzea eta eraikinaren errentariak programak betetzea. Agiri honetan ezarritako termino eta baldintzen arabera ordainduko da errenta.

1.3.- Alokairuaren kontratua lehiaketaren bitartez esleituko da, interesatuta dagoen edozeinek aurkeztu ahal izango du eskaintza, azaroaren 3ko 33/2003 Herri-administrazioen Ondareei buruzko Legearen 107.1 artikuluak xedatutakoaren arabera.

1.4.- Garaiko Udalaren izenean jarduten duen organo kontratatzailea, Osoko Bilkura da.

Aipatutako organoak izango du kontratu hau esleitzeko ahalmena eta, ondorioz, berak izango du eskumena kontratua interpretatzeko, berau betetzearen gaineko zalantzak argitzeko, herri-interesen bermean aldaketak egiteko, baliogabetzea erabakitzeko eta ondorioak xedatzeko, betiere baliozko araudiak beteta. Honen gainean hartuko dituen erabakiak betearazleak izango dira, kontratatzaileak Jurisdikzio eskudunaren aurrean aurka egiteko duen eskubideari kalterik eragin gabe.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

2.- EKONOMIA ERREGIMENA.

2.1.- Errentariaren ordainketak.

Alokairuaren prezio gisa, errentariak Garaiko Udalari kontratua esleitutako zenbatekoa ordainduko dio, urteko 18.000,00 euro baino gutxiagoko izango ez dena, hau da, hilean 1.500 eurotik gorakoa, BEZ kanpo.

Eskaintza motaren hobekuntzak goranzko estimazioan egingo dira.

2.2.- Ordainketa Sistema.

Errentariak hileroko kuoten bidez ordainduko dio Garaiko Udalari eraikinaren alokairuaren errenta, honek eskaintzan ezarritako zenbatekoa errespetatuz, hile bakoitzeko lehen bost egunen barruan.

3.- PREZIOEN BERRIKUSKETA.

3.1.- Kontratua enpresa kontratatzailearen ardurapean gauzatuko da.

3.2.- Ez da prezioen berrikusketarik egingo.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA BERAU GAUZATZEKO EPEA.

Kontratu honek hiru (3) urteko iraupena izango du, jarduera erabat edo zati batean, martxan jartzen denetik kontatzen hasita.

Edonola ere, eta Herri-Administrazioen Ondareei buruzko 33/2003 Legearen 107.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau urtebete (1) gehiago luzatu ahal izango da.

Luzapena egiteko bi aldeak ados egon beharko dira. Hala eta guztiz ere, luzapena nahi duen aldeak, hasierako kontratua bukatu baino sei hilabete lehenago jakinarazi beharko du eta Administrazioak hartuko duen azken erabakiaren menpe egon beharko du.

5.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA.

Baldintza ekonomika-administratiboen agiriak eta gainontzeko dokumentazioa Garaiko Udalean izango dira eskuragarri jendaurreko bulegoaren ordutegian, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Lizitatzaileak, proposamenak aurkeztu baino lehen, entitate kontratatzailearekin harremanetan jarri ahal izango dira eskaintza honekin batera doazen baldintza zehatzak aztertzeko helburuz.

Era berean, proposamenak aurkeztu baino lehen, interesdunek Herriko Tabernaren instalazioetara joan ahal izango dira eraikina bera eta honek dituen baliabideak ezagutu ahal izateko.

Eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.garai-udala.eus

GARAI ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

II.- LIZITATZAILEAK ETA BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

6.-. ESLEIPEN PROZEDURA.

6.1.- Esleipen prozedura irekia izango da, beraz, kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna duten pertsona fisikoak eta juridikoak parte hartu ahal izango dute.

6.2.- Lizitatzaileek kontratuaren xedea den eskaintzarako proposamenak egin ahal izango dituzte, jarraian zehazten den moduan. Lanerako gaitasun osoa duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edota profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek parte hartu ahal izango dute, baldin eta, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez badute.

Kontratu jakin bat burutzeko beharrezko kaudimena egiaztatze aldera, lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, beraiekin lotzen dituen izaera juridikoa edozein izanik, betiere, kontratua gauzatzeko baliabide horiek badituala frogatzen badu.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa burutzeko eska daitekeen gaikuntza enpresaria edo profesionalaren jabe izan beharko dute.

Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-elkarketa eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero ABEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestalde, aldi baterako enpresa-elkarketako kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

Lizitatzaile bakoitza ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, edozenbat izanda ere aurkezteko erabil daitezkeen sailak. Proposamena bakarka egin duenak ezin izango du taldean proposamenik izenpetu. Lizitatzaile batek printzipio hau betetzen ez badu, egindako proposamen guztiak bertan behera geratuko dira era automatikoan.

Proposamena aurkezten duenak era automatikoan onartuko ditu agiri honetan eta gainontzeko beste kontratuzko dokumentu orotan xedatutako klausula guztiak, baldintzarik zein salbuespenik gabe. Era berean, aurkeztutako datu guztien zehaztasunari dagokion adierazpena eta kontratazioaren xedea den prestazioak eskaintzeko beharrezko baldintza guztiak betetzeko konpromisoa ere berehala hartu beharko du.

Behin proposamena aurkeztuta, ezin izango da inola ere atzera egin, arrazoi justifikaturik ez bada behintzat.

7.- BERMEAK

Ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lehiatzaileak, kontratatutako betekizunak bermatzeko, 4.800euroko bermea osatuko du, BEZ kanpo.

Eskaintzak neurriz gainekoak edo anormalak aurkeztu badira, aurreko bermea esleipen zenbatekoaren %10ekoa izan beharko da, BEZ kanpo, KSPLaren 107. artikuluarekin bat etorriz.

Berme hori jartzeko epea lehen sailkatuari bidalitako errekerimenduan adierazitakoa izango da eta azaroaren 8ko, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

GARAI ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLaren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

8.- PROPOSAMENEN ETA DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENA.

8.1.- AURKEZTEKO ERA ETA EPEA: Proposamenak **elektronikoki** aurkeztuko dira eta **Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma**n agertzen den iragarkian zehazten den plataforma bitartez egingo da lizitazio elektroniko,egutegiko **HOGEI (20) EGUN NATURALEKO** epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak elektronikoki ez badira aurkezten, lehiaketatik baztertua izateko arrazoia izan daiteke.

Lehiatzaileek **artxibo** bi (A eta B) aurkeztu beharko dituzte.

I.- "**A" artxiboaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"**. Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) **DEUC** (Kontratatzeko europar dokumentu bakarra). (I ERANSKINA).
b) **ABEBrako konpromisoa**, (III ERANSKINAREKIN bat etorriaz, kasu bada.
c) Instalazioa ustiatuko duen pertsonala EAEan dauden hizkuntza ofizial bien ezagutza agerrarazten duen **erantzukizun adierazpena**, (IV ERANSKINA).

Fitxategi honetan automatikoki baloratuko diren irizpideekin erlazioa duen edonolako dokumenturik atxikitzen duena lizitazio prozeduratik BAZTERTUA izango da.

II.- "**B" artxiboaren azpititulua hau izango da: "PROPOSATUTAKO DEN EBAZPENA"**. Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiria:

a) Proposamen ekonomikoan Garaiko Udalari ordaintzea proposatzen den kanon edo errenta adieraziko da, II. Eranskinaren ereduan adierazitakoaren arabera idatzita.

   Esleipendunak ordaindu beharko duen kontratuaren gutxieneko kanona urteko 18.000,00 eurotakoa izango da. Proposamen ekonomikoa karaktere argietan aurkeztuko da eta, bat ez badatoz, letraz idatzitako zenbatekoek lehentasuna izango dute zifrez idatzitakoen gainetik.

b) Jarduera ludikoen programaren dokumentua: taberna-kafetegi zerbitzuaren erabiltzaileen dinamizazioa.

c) Lokalaren irekitzeko hobekuntza dokumentua.

Proposamenak sekretuak izango dira, eta lizitazio Publikoa izan arte izaera hori bermatzen duen baliabideak ezarriko dira.

Aurkeztu behar den dokumentazioaren argibideak.

- Hautagai bakoitzak eskaintza bat baino ez du aurkeztuko eta ezingo du aldi baterako eskaintzarik sinatu, dagoeneko banaka edo taldeka egina badu . Arau-hauste honekin ez da hautagaiak sinatutako eskaerarik onartuko.
- Proposamenak ireki eta 2 hilabeteko epean, lizitatzaileek ezin izango dute proposamena bertan behera utzi.
- Kontraesanak, informazio falta edo akatsak dituzten proposamenak ez dira onartuko beti ere, horien ondorioz eskaintzaren funtsezko aspektuak ez badira ulertzen.
- Kontratu honen izaeragatik, ez da proposamenen aldagai edo alternatibarik onartuko.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

- Dokumentazioak birusak baditu, proposamen hori aurkeztu duen lizitatzailea izango da horren erantzulea.

8.3 LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA: Beharrezkoa denean dokumentazio osagarria edota gehigarria eskatzea, kontratatzen duen Administrazioak eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez sei egun lehenago emango du, beti ere, eskaria aipatutako data iraungi baino gutxienez hamabi egun lehenago egiten bada. Eskaera lizitazioan agertzen den posta elektronikora edota faxera egingo da.

SPKLaren 136.2 eta 3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, parte hartzeko eskaerak edo proposamenak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizitaziorako prozedura honetan deskribaturiko bitarteko elektronikoz aurkezten ez diren eskaintzak ez dira onartuko. Horretarako, beharrezko baldintza da Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman edo Sektore Publikoko Kontrataziorako Plataforman erabiltzaile bezala erregistratua izatea.

Eskaintza bateko edozein dokumentu ezin bada modu egokian bistaratu, egoera hau jakinarazten denetik gehienez 24 orduko epea onartuko zaio lizitatzaileari, akatsa izan duen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkeztu dezan.

Ondoren aurkeztutako dokumentuak ezingo du jatorrizko eskaintzan sartukoarekin alderatuta aldaketarik izan. Kontratazio Organoak dokumentuak aldaketak izan dituela egiaztatzen badu lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartua izango.

Proposamenak Administrazio Klausula Partikularren Baldintzen Agirian aurreikusitakora atxiki beharko dira, eta aurkeztu izanak lizitatzailearen aldetik klausula edo baldintza hauek baldintzarik gabe, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, onartzen dituela suposatzen du, bai eta Lizitatzaileen Erregistroan eta Euskadiko Sailkatutako Enpresen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematen diola.

9.- KONTRATAZIO MAHAIA, DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA ETA ESLEIPENAREN XEDEAREN ALDERDIAK.

9.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Jasotako proposamenak aztertze aldera, Kontratazio Mahaia eratuko da, horrela osatua egongo dena:

- Presidentea, Udalbatzako presidentea edo horrek ordezkari hartuko duen pertsona izango da.
- 3 batzordekide, Udal Idazkari-kontuhartzailea eta funtzionario publiko bi.
- Idazkaria, Udaleko administraria.

9.2.- PROPOSAMENEN AZTERKETA. Kontratazio Mahaiak lehendabizi A artxiboaren edukia aztertuko du eta aurkeztutako dokumentuei denbora eta itxurari dagokien kalifikazioa emango die. Aipatutako kalifikazio hori emateko, presidenteak artxiboak irekitzeko agindua emango du. Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan akats materialak antzematen baditu, ahoz jakinaraziko die interesdunei. Gainera, jakinarazpen horiek iragarki oholean edo organo kontratatzailearen profilean argitaratuko dira eta, gehienez, hiru baliodun eguneko epea emango zaie eskaintzaileak sumatutako akatsak zuzen ditzaten.

Egiaztagiriak kalifikatu ondoren eta, behar denetan, aurkeztutako dokumentazioan izandako akats edo hutsak konpondu ondoren, hautaketa irizpideak ondoen betetzen dituzten enpresak aukeratzeari ekingo dio

mahaiak. Organo eta Mahai kontratatzaileek aurkeztutako agiri eta dokumentuen gaineko argibideak eskatu ahal izango dizkiote enpresariari edo beste gehigarri batzuk aurkezteko galdegin.

Adierazitako leku, data eta orduan burutuko den proposamenen irekiera ekitaldia, Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman argitaratuko da.

Azkenik, mahaiak proposamen ekonomikoei dagokien B artxiboa irekitzeari ekingo dio.

Kontratazio mahaiak, proposamena egin baino lehen, beharrezkotzat jotzen dituen eta kontratuaren xedearekin lotura duten txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

9.3 ESLEIPENAREN XEDEAREN ALDERDIAK.

Eskaintzen balorazioa honako baremo hauen arabera egingo da:

1.- Eskaintzen den errenta handiena. (0tik 40 puntura)

Eskaintza ekonomikoak **40 puntu gehienez** izango du eta kontratua, bere osotasunean, egoki betetzen dela bermatzeko, lizitazio preziotik, puntu bat jarriko da 10 euro/hilekogatik, BEZ kanpo lizitazio preziotik.

2.- Taberna larunbat, igande eta jaiegunetan irekitzeko ordutegia hobetzea. Ezarritako irekieraren aurreko ordu bakoitzeko (11:00) 2 puntu, **gehienez 6 puntu**.

3.- Dinamizazio-jarduera ludikoen programa jarraitua eta errepikakorra, taberna-kafetegiko zerbitzuaren erabiltzaileentzat. Proposatutako dinamizazio-jarduera bakoitzeko 2 puntu ezarriko dira, **4 puntu gehienez**.

Lizitatzaileen puntuazio-berdinketa gertatuz gero, eskainitako errentarik handienean puntuaziorik handiena lortu duena izango da nagusi, baldin eta irekitze-ordutegiaren hobekuntzan puntuazio handiena lortu duenak berdinketan jarraitzen badu. Zozketa bidezko berdinketak jarraitzen badu.

10. ESLEIPENA.

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar (10) egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian,inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu,aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera.Hala ez bada,eraketaren,estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean,eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira, baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

c) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere,alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du,uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria,gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Lizitatzailearen **ekonomi eta finantza-kaudimenaren** eta **gaitasun tekniko** frogagiriak:

- Ekonomi eta finantza kaudimena (87. Art): Hurrengoaren bitartez egiaztatuko da:

  - Ostalaritzako sektorerako berariazko aseguruaren kopia konpultsatua eta ordain-agiria, non erantzukizun zibilaren estaldurak agertzen diren - gutxienez 400.000 euroengatik -, kalte pertsonalak, kalte materialak eta bestelako berme gehigarriak, kapital nahikoarekin, edukitzaile eta edukia balioa estaltzeko.

- Gaitasun teknikoa (90. art): Hurrengoaren bitartez egiaztatuko da:

  - **Kontratuen erlazioa** (90.1.b): Gaitasun teknikoa egiaztatutzat ulertuko da hurrengoak egiaztatzerakoan: “Arauzko elikagaien erabiltzaile-txartela eduki beharko dute, hala nola Funtzionamendurako Osasun Baimena (FOB), eta elikadura-higieneari buruzko arau guztiak bete beharko dituzte.

e) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-elkarketa eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero ABEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek (III ERANSKINA). Bestalde, aldi baterako enpresa-elkarketako kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

f) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

Goiko a), b) eta d) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 97. artikuluak xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da. Egiaztagiria indarrean egongo da kontratua modu egokian gauzatu arte.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea.

h) Erantzukizun zibilaren aseguruaren kopia.

i) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, eskaintzen sailkapenaren ordena jarraituta, hurrengo eskaintzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

SPKLaren 150.3 artikuluaren arabera esleipena, dokumentazioa jaso eta bost (5) lan-egunetan egingo da. Ondoren jakinarazi eta kontratatzaile profilean argitaratuz.

SPKLaren 152 artikuluaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, lehiatzaileei jakinaraziko zaie.

Kontratuari edo prozedurari ezetza ematen bazaio, kontratazio organoak erabakiko du esleipena egin orduko. Horrelako kasuetan hautagai edo lizitatzaileei egindako gastuak ordainduko zaizkie iragarkian edo pleguan aurreikusitako moduan edo Administrazio erantzukizun printzipioen arabera.

Kontratuari ezetza emango zaio interes publikoko arrazoiak egonez gero eta espedientean zuzen argituko dira. Kasu honetan, ezingo da xede bereko lizitazio berririk egin ezespenaren arrazoiak dirauen bitartean.

Prozedura ezespenaren arrazoia, kontratuan edo esleipen prozedura arautzen duen arauen batean konpondu ezineko arau-hausteren bat gertatzea eta horrelakoetan espedientean azaldu beharko da. Ezespenak ez du lizitazio prozedura berri bat galaraziko.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenetik hamabost (15) egun errekurtsorik jarri gabe pasatzen badira, esleipendunari kontratua formalizatzeko eskatuko zaio bost (5) eguneko epean errekerimendu jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III. KONTRATUA GAUZATZEA.

11.- KONTRATUA GAUZATZEA.

11.1.- Kontratua agiri honetan ezarritako klausulei zorrozki lotuta eta organo kontratatzaileak kontratistari emandako argibideei jarraiki gauzatuko da.

Kontratistak gauzatuko du kontratua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 305 eta hurrengo artikuluetan xedatutako erantzukizunak bere gain hartuta.

Kontratuaren garapen prozesuan zehar eta berme-epea betetzen den arte, kontratista sor daitezkeen akats guztien arduradun izango da.

11.2.- Kontratistak kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzeko erabiliko duen lokalean ageri diren instalazio, altzari eta tresnak erabiltzeko eskubidea izango du, agiri honetan gehitu den IV. eranskinean ageri den inbentarioa kontuan hartuta.

Kontratistaren betebeharrei dagokienez, honako hauek izango dira:

a. San Migel auzoko 20. zenbakian kokatuta dagoen Garaiko Herriko Taberna gisa ezagutzen den eraikinaren beheko solairuaren eskuineko aldea, sotoa, atzealdeko gehigarria eta biltegia erabiliko

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

dira. Hau da, eraikina eman den egunean inbentarioan gehitutako Udalaren jabetzapean dauden taberna, jatetxe, sukalde, biltegi eta bertako komunak, baita altzariak eta bestelako tresnak ere.

b. Ezohiko konponketa guztiak Udalaren esku egongo dira, hau da, zerbitzuari lotutako ondasunak era normalean erabili edo zaintzearekin loturarik ez duten arazoak Udalak konponduko ditu.

c. Lokala astean behin ixtea atseden-egun gisa, eta egun hori igande, jaiegun edo jai-bezpera izan gabe. Atseden-eguna izan ezik, Herriko Tabernako barra-zerbitzua urteko egun guztietan egongo da irekita.

d. Herriko Tabernari sarrera-ukatzea erreserbatzeko eskubidea emango zaio, baina ezin izango du auzokide ez herritarrekin eskubide hori erabili. Udalerriko biztanleren batek, bere jarrera txarrak eraginda, elkarbizitza ezinezko egingo balu, Udalari jakinaraziko zaio eta honek esleipendunari baimena eman ahal izango dio pertsona horri tabernan sartzea ukatzeko.

Honako hauek izango dira esleipendun edo errentariaren aparteko betebeharrak:

a. Bigarren klausulan ezarritako bidea errespetatuz errenta hilero ordainduko du.

b. Errentan hartutako lokalean tabernaren edo taberna eta jatetxearen negozioa zuzenean eta pertsonalki gidatuko du (aurkeztutako proposamena eta esleipenaren arabera), lanari arduraldi osoa eskainiko dio eta bezero gehien dauden orduetan bertan egon behar izango du, jaiegun eta jaiegunen bezperetan batik bat.

c. Urak, telefonoak, argindarraren zein gasaren kontsumoak, udal zerbitzuei dagozkien prezio publiko zein zergek eta “Herriko Taberna” ustiatzeak dakartzan bestelako alderdiek eragindako gastuak ordainduko ditu.

d. Negozioaren ustiapena zergapetzen duten mota orotako zergak eta ustiapenerako finkatzen diren beharrezko eta legezko baimenen gastuak ordainduko ditu.

e. Errentan hartutako lokala eta berekin dakartzan instalazio guztiak modu egokian erabili eta zainduko ditu. Alokatutako elementu guztiak mantendu, konpondu eta ordezkatzeko beharrezko lanak bere gain hartuko ditu, besteak beste, pintura, argia eta uraren instalazioa, ateak, leihoak, altzariak, sukaldea, aparailuak, eta abarrak.

f. Elementu guztiak ustiapena hasteko unean zeuden bezalaxe itzuliko dizkio Udalari.

g. Lokala eta ingurua ahalik eta zainduen, apainduen eta garbien mantenduko ditu.

h. Lokala taberna-jatetxe gisa baino ez du erabiliko eta ustiapenak dakarren zerbitzuetarako soilik, ezin izango da lokalaren erabilera inola ere aldatu.

i. Agintaritza eskudunak horrelako lokaletarako ezarritako irekiera- eta itxiera-ordutegia errespetatzea eta betetzea. Hala ere, lokala 11:00ak baino lehen irekiko dela bermatuko da, batez ere jaiegunetan eta asteburuetan. Halaber, lokala 21:00etatik aurrera itxiko dela bermatuko da astelehen, astearte, asteazken, ostegun eta igandeetan, eta 23:30etik aurrera ostiral eta larunbatetan.

j. Morala eta jokaera ona izango ditu.

k. Legezko xedeetan oinarrituta, bereziki betebehar eta ardurei dagokionean, esleipendun-errentaria negozioaren ustiapenaren titular bakar eta esklusibo gisa agertu eta jardungo du, Garaiko Udalaren banaketa juridiko osoa gailenduko da eta inola ere ez da aipatutakoaren ekintzek behartuta geratuko. Gauzak horrela, esleipendun-errentariak taberna-jatetxearen ustiapenerako

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

kontratatutako enplegatu, saltzaile edo kontratupeko langile guztiak bere ardurapean jardungo dira eta inola ere ezin izango dira Udal enplegatutzat hartu.

l. Espresuki idatziz jasotzen denaren arabera, alokairua bukatzen denean esleipendun-errentariaren zerbitzura lanean ari diren pertsona guztiek instalazioak utzi beharko dituzte eta Udalari emandako zerbitzua bertan behera geratuko da. Horrek ez du beraienganako ardurarik izango eta, hala behar denetan, egokitu dakizkiekeen kalte-ordain edo konpentsazioak esleipendun-errentariaren kontura geratuko dira.

m. Esleipendun-errentariarena izango da, eta ez beste inorena, Gizarte Segurantzaren zein lan eta industria arloko legeriaren gainean indarrean dauden legeak betetzeko erantzukizuna.

n. Esleipendun-errentariarenak izango dira, eta ez beste inorenak, hornitzaileekin izan daitezkeen zorrak kitatzeko erantzukizuna eta, oro har, edozein motatako erantzukizunak (zigorrak, kontratuan ageri ez diren erruen erantzukizuna eta abar). Negozioaren ustiapenak eragindako arazoetan, inola ere ezin izango zaio Garaiko Udalari zuzeneko edo zeharkako erantzukizunik eskatu.

o. Errentan hartutako edozein motatako lanak burutzeko baimena Udalari eskatu beharko zaio eta Garaiko Udalak idatziz jasotako baimena eman beharko dio lana egin baino lehen. Esleipendun-errentariak burutuko dituen edozein motatako lan edo hobekuntzak negozioaren lokalean geratuko dira eta, alokairu kontratua bukatzen denean, Garaiko Udalaren jabetza izatera igaroko da, azken honek ez dio ezer ordaindu beharko.

p. Ezohiko konponketak burutzea beharrezko egiten duten gertakari guztiak 3 egun naturalen epean jakinaraziko dira eta konponketak Udalaren esku geratuko dira.

q. Taberna-jatetxearen zerbitzua martxan jarri eta zerbitzua eskaintzen jarraitzeko, beharrezko ez diren ondasunen inbentarioan sartuta ez dauden material guztiak, kontsumitzekoa izan zein ez, hornitu eta berriz jarriko ditu.

r. Errentan hartutako negozioaren ondorioz sortutako edo eragindako edozein bahitura edo traba gertatzen denean, legezko egin den alokairu kontratua erakutsi eta errentari izaera aldarrikatu beharko du. Era berean, edozein motatako traba izapidetan kontratuaren beraren berri eman beharko da espresuki eta gertatutakoa berehala Udalari jakinarazi beharko zaio, honek eragozpen arrazoi izan daitezkeen ondasunen gainean dituen eskubideak erabil ditzan. Zentzu honetan, jarduera judizialak eragin ahal dituen gastuak esleipendun-errentariaren esku geratuko dira.

s. Ustiapenak eragindako erantzukizunak bermatuko dituen erantzukizun zibileko asegurua kontratatuko du, gutxienez 400.000,00 €-takoa, eraikinari edo instalazioei eragin dakizkiekeen kalteak estaliko dituena eta bitartekoen aurrean erantzukizun zibila bermatuko duena.

t. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean izena eman beharko du eta zerbitzuaren ustiapenak eragiten dituen tokian tokiko zein estatu mailako zergen gainean jakitun egon beharko du.

u. Taberna-jatetxearen lokal eta instalazioak erabiltzeko eskubidea emango dio Udalari ekitaldi ofizial edo protokoloko ekitaldiak egiteko, horrelakoetan, Udalak nahikoa aurrerapenaz jakinaraziko dio esleipendun-errentariari.

v. Garaiko Udaleko ordezkarien bisitak baimenduko ditu, azken hauek eraikinean sartzeko askatasuna izango baitute errentan hartutako ondasuna, bertako lanak, instalazioak eta lokalak zein alokairuaren xedearekin lotutako dokumentazioa ikuskatzeko eta prestazio egokia mantendu eta berreskuratzeko aginduak emateko. Alokairu honen xedearen instalazioak era egokian erabiltzen direla bermatuko dute.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

w. Alokatutako lokaletan ez du sutara botatzeko egurrik pilatuko, egunean kontsumituko dena asetzeko baino ez du barruan gordeko.

Honako aspektu hauek esleipendunaren kontura izango dira:

a. BEZaren ordainketa, baita kontratuak eragingo duen beste edozein zerga edo ordain ere.
b. Hala behar denetan, esleipen kontratuaren formalizazio publikoko zergak.
c. Errentan hartutako eraikinean sor daitezkeen arriskuak aseko dituzten kalteen eta erantzukizun zibilaren gaineko aseguruen polizak baimendutako entitatean, (ostalaritzako industriaren funtzionamenduak zuzenean edo zeharka udal titulartasuna duten ondasunei edo bitarteko pertsonei eragin diezaiekeen kalteak). 400.000,00 €ko asegurua alokairuan iraun bitartean egongo da indarrean, hala behar izanez gero, luzapenekin batera hedatuko da eta Udala erantzukizunetatik salbuetsiko du.

Jabe eta errentari den Udalari aipatutako negozioaren gaineko ustekabe eta behar ez diren eragozpenak saiheste aldera, esleipendun-errentariak ordainsariak, zergak, isunak eta zigorrak ordaintzeko konpromisoa hartzen du, baita negozioaren ustiapenean eragindako eta alokairua indarrean egon bitartean esleipendun-errentariak ordaindu ez dituen bestelako edozein karga ordaintzeko konpromisoa ere.

11.3.- Errentariaren betebeharrak honakoak izango dira:

a) Hitzartutako erabilera gauzatu ahal izateko eraikina baldintza egokietan mantentzeko beharrezko lan guztiak Garaiko Udalak egingo ditu eta ezin izango du horregatik errentaren zenbatekoa handitu. Dena dela, errentariari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz sortutako narriadura gertatzen bada, Udalak ez du hori ordaindu beharko, Kode Zibilaren 1563 eta 1564 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

b) Kontserbazio eta hobekuntza lanei dagokienez, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Kontserbazio lanak: Hitzartutako erabilera gauzatu ahal izateko eraikina baldintza egokietan mantentzeko beharrezko lan guztiak Garaiko Udalak egingo ditu eta ezin izango du horregatik errentaren zenbatekoa handitu. Dena dela, errentariari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz sortutako narriadura gertatzen bada, Udalak ez du hori ordaindu beharko, Kode Zibilaren 1563 eta 1564 artikuluetan xedatutakoaren arabera (Hiri Errentamenduen Legearen 21 artikulua).

Hobekuntza lanak: Errentatzaileak hobekuntza lanak egitea erabakitzen badu, errentariak lanok jasan beharko ditu, nahiz eta alokairua bukatu arte berretsi ezin (Hiri Errentamenduen Legearen 22 artikulua).

c) Errentariaren lanak: Errentariak ezin izango du, errentatzailearen idatzizko baimena izan ezean, eraikina edo gehigarriak aldatuko dituzten edo eraikinaren beraren egonkortasuna edo segurtasuna arriskuan jar dezaketen inolako lanik egin. Kontratua indargabetzeko ahalmenari kalterik egin gabe, lanak burutzeko baimenik eman ez eta burutu badira, errentatzaileak, kontratua bukatu ondoren, errentariak dena aurretik zegoen bezala jartzeko eska dezake edo aldaketa mantendu. Azken egoera honetan errentariak ezin izango du kalte-ordainik eskatu .

Lanek eraikinaren edo gehigarrien egonkortasunari edo segurtasunari kalte eragin badiote, errentatzaileak berehala eskatu ahal izango dio errentariari gauzak aurretik zeuden bezala berriro jartzeko (Hiri Errentamenduen Legearen 23 artikulua).

11.4.- HERRIKO TABERNAREN USTIAPENAREN GAINEKO IKUSKAPEN OROKORRA.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

Organo kontratatzaileak, berariaz kontratatutako ordezkari baten bitartez eta kontratuak dirauen bitartean edozein momentutan, ostalaritzako establezimenduaren zerbitzuak eta kontserbazio egokia ikuskatzeko eskubidea izango du.

Errentaria alokairuaren eta ondasunen egoeraren gainean duen informazio osoa eskaintzera behartuta dago. Era berean, organo kontratatzailearen ordezkariari zein horrekin kolaboratzen duen baimendun pertsonari erabateko askatasuna eman beharko die instalazioetan sartu eta euren ikuskapen lanak garatzeko.

12.- KONTRATUAREN BUKAERA.

Kontratazio hau kontratua bukatu edo bertan behera uzten denean iraungiko da.

12.1.- Alokairua hasieran ezarritako 48 hilabete edo lau urteak igaro direnean iraungiko da edo, hala gertatzen denetan, errentariari eman zaion luzapena bukatzen denean.

Alokairuaren epea bukatzen denean, era automatikoan eta inolako eskakizunik gabe, errentaria eraikina uztera behartuta egongo da eta, une horretatik aurrera, itzuliko zaio aurkeztutako behin betiko bermea eta fidantza, betiere eraikina jasotzerakoan baldintza egokietan dagoela ziurtatu ondoren.

Kontratuaren epea bukatutakoan, data berean iraungiko dira Herriko Tabernaren ustiapenari lotuta dauden kontratu edo azpikontratu guztiak. Negozioaren ustiapenari lotutako aipatutako kontratu horiei dagokien zor guztiak, errentariaren esku geratuko dira.

Egindako hobekuntza guztiekin, eraikina, bestelako bitarteko osagarri eta erantsitako ondasun higigarriak Garaiko Udalaren eskutara itzuliko dira, hori bai, funtzionamendu zein kontserbazio egokia mantentzen dutela bermatuta.

12.2.- Eskubide eta betebeharren eskualdatzea:

Agiri honetan jasotako eskubideak ezin izango dira eskualdatu, subrogatu, ezta eten ere.

Debeku hauek ez errespetatzeak kontratuaren baliogabetzea ekarriko du eta fidantza galtzeaz gain, hala behar denetan, kalte-galerak ordaindu beharko dira.

12.3.- Kontratua bukatzen den kasuez gain, Kode Zibilaren 1124 artikuluan xedatutakoaren arabera eta kontratuan ebatzitakoari jarraiki, kontratuan agertzen diren aldeetako batek adostutako betebeharrak konplitzen ez baditu ere iraungiko da kontratua.

Errentatzaileak eskubide osoz baliogabetu ahal izango du kontratua honako egoera hauek ematen badira:

a) Errentariak errenta edo, hala gertatzen denetan, onartuta berari dagokion pagamenduren bat ordaintzen ez badu.
b) Errentariak fidantza edo honen eguneratzeari dagokion zenbatekoa ordaintzen ez badu.
c) Errentariak baimenik gabe beste bati alokatu edo lagatzen badio.
d) Errentariak engainuen ondorioz eraikinean kalteak eragiten baditu edo, baimena behar denetan, lanak baimenik gabe egiten baditu.
e) Eraikinean traba egiten duten jarduera, osasunaren kalterako diren jarduerak eta jarduera kaltegarri edo arriskutsuak burutzen badira.

Gainera, ezar daitekeen legean aurreikusitako beste kausa batzuei kalterik eragin gabe, kontratu hau baliogabetzeko bestelako arrazoi batzuk ere egongo dira. Honako kasu hauetan:

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

a) Errentariak Administrazioaren aldetik kontratua gauzatzean ezarritako kontrolari oztopoak jartzen badizkio berariaz eta era errepikatuan.
b) Errentariak agirietan ezarritako klausuletan xedatutakoa bete ez eta lokala era ezegokian ustiatzen badu.
c) Bi aldeek adostasunez erabakitzen badute.
d) Organo kontratatzaileak sei hilabete baino gehiagora luzatzen badu errentariari alokairuaren xede diren eraikina eta bestelako ondasunak emateko prozesua.
e) Errentariak ordaindu beharreko errentari dagokion faktura jaso eta bi hilabete baino gehiago igarota zorra ordaintzen ez badu.

13.- KONTRATUAN EZARRITAKO BETEBEHARRAK EZ KONPLITZEAK DAKARTZAN ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK.

13.1.- Alokairuak dakartzan betebeharrak ez konplitzearen ondorioz sortutako zigorrak.

Errentariak agiri honetan jasotako betebeharrak konplitzen ez baditu jarraian aurkeztuko diren zigorrak ezarri ahal izango zaizkio, eragin ahal izan diren kalte-galerak ordaintzeko betebeharrari kalterik eragin gabe.

Arau-haustea eragin duten faktoreak kontratua baliogabetzearen ondorioz direla ere, zigor erregimen hau ezartzeko eskumena organo kontratatzailearena izango da eta kontratua behar baino lehenago iraungiko da, agiri honetan jasotakoaren arabera.

13.2.- Arau-hausteen mailaketa.

Zigor erregimen honen arabera, errentariak konplitzen ez dituen betebeharrak arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira.

13.2.1.- Arau-hauste arinak.

Konplitu gabeko betebehar txikiak dira:

1. Herriko Tabernaren instalazio guztiak baldintza onetan ez mantentzea eta era egokian ez zaintzea. Hau da, beharrezkotzat jotzen diren konponketak ez burutzea, betiere kontserbazio falta horrek segurtasunari eta zerbitzua eskaintzeko erari arriskurik eragiten ez badio.
2. Eraikinaren baitan dauden instalazioetan poliziaren arauak ez betetzea edo ez betearaztea, betiere jarrera hau jarraitua ez bada.
3. Eskaintzan jasotako gainontzeko konpromisoak ez betetzea, betiere arau-hauste larri gisa sailkatuta ez badaude.

13.2.2.- Arau-hauste larriak.

Konplitu gabeko betebehar larriak dira:

1. Errenta ez ordaintzea.
2. Alokairuaren fidantza eguneratuta ez izatea.
3. Langileei dagokienean, agiri honetan jasotzen diren kontratua gauzatzeko aparteko baldintzak ez betetzea.
4. Ustiapen eta Mantenu Plana ez betetzea.
5. Ostalaritzako instalazioen ustiapena arautzen duten arauak ez betetzea.
6. Bost arau-hauste arin egitea.
9. Justifikaziorik gabe eta aldez aurretik idatziz jakinarazi gabe, zerbitzu bat moldatzea.
10. Publikoarekin edota Udaleko langileekin errespetu falta larriak izatea.

San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

13.2.3.- Arau-hauste oso larriak.

Konplitu gabeko betebehar oso larriak dira:

1. Turismo saileko zerbitzu eta jarduerak arautzen dituzten xedapenak bete gabe halako zerbitzu eta jarduerak burutu edo aurkeztea.
2. Udalerriaren turismo-interesei kalte eragin diezaiekeen edo baliabide naturalentzako zein ingurumenarentzako kaltegarri izan daitezkeen turismoaren arau-hausteak egitea.
3. Kontratuak jasotako betebeharrak ez konplitzeagatik bezeroei kalte handiak eragitea.
4. Udalaren berariazko baimenik gabe, kontratua beste pertsona bati igortzea.
5. Esleipendun enpresak, Udalaren instalazioetan lan egiten duten langileei dagokienez, Gizarte Segurantzaren betebeharren eta bestelako betebeharrak ez konplitzea.
6. Ordenamendu juridikoaren arabera, kontratistak administrazio-kontratua baliogabetzea eragin dezaketen edozein betebehar ez konplitzea.

13.2.4.- Zigorrak.

Errentariak konplitu gabeko betebeharrak horrela zigortuko dira:

a) Konplitu gabeko betebehar arinak 30 eta 50 euro bitarteko isunen bidez zigortuko dira.
b) Konplitu gabeko betebehar larriak 50 eta 100 euro bitarteko isunen bidez zigortuko dira.
c) Konplitu gabeko betebehar oso larriak 100 eta 300 euro bitarteko isunen bidez zigortuko dira eta errentamendu-kontratuaren baliogabetzea eragin ahal izango dute. Edonola ere, bi hilabetean ordainketarik egiten ez bada, berehala abala gauzatuko da eta kontratua deuseztatu egingo da.

Betebeharrak ez konplitzeak delitua edo falta badakar, organo kontratatzaileak agintaritza eskudunari jakinaraziko dio.

Organo kontratatzaileak zigorrak ezartzeko orduan, egindako arau-haustearen eta ezarritako zigorraren arteko neurri aproposak mantendu beharko dira eta mailaketarako bereziki honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Berariaz egin den eta arau-hauste bera errepikatu den.
b) Eragindako kalteen nondik norakoak.
c) Arau-hauste bera behin eta berriro errepikatu den, hau da, antzeko betebeharrak urte berean behin baino gehiagotan konplitu ez izana.

13.2.5.- Zigorrak ezartzeko prozedura.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ematen zaion eskuduntza erabiliaz, Alkateak izango du zigorrak ezartzeko ahalmena, honako lege hauen arabera: uztailaren 19ko 26/1984 Legea, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Orokorrari buruzkoa, eta ekainaren 22ko 1945/1983 ED, kontsumitzaileen babes arloko arau-hausteen erregimenari buruzkoa.

Hutsegite arina burutzeagatik txosten sumarioa irekiko da eta bertan legea hautsi duenak esan beharrekoa entzungo da. Hutsegite larri edo oso larrien kasuan, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan onartutako Zigortzeko ahalmena erabiltzeko prozeduraren araudiaren arabera zigortuko dira.

14. ORGANO KONTRATATZAILEAREN ESKUMENAK, KONTRATUAREN IZAERA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1.- Organo kontratatzaileak administrazio-kontratuak interpretatzeko eta berau betetzeak ekar ditzakeen zalantzak argitzeko eskumena dauka. Era berean, herri-interesak eraginda, kontratuak aldatzeko gaitasuna

GARAI ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20 • 48200 Garai
e-mail: udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

izango du eta hauen baliogabetzea erabakitzeko zein xedeak zehazteko gai izango da, azaroaren 8ko 9/2019 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.

Kontratua interpretatzeko, moldatzeko eta baliogabetzeko eskumena erabiltzean organo kontratatzaileak hartutako erabakiak berehala ezarri beharko dira.

2.- Esleipenduna Garaiko Udalarekin lotuta mantenduko duen kontratu harreman juridikoa pribatua izango da eta honen prestakuntza zein esleipenaren arabera bideratuko da, Herri-administrazioen Ondasunei buruzko 33/2003 Legearen eta abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren arabera, Herri-administrazioen Ondasunei buruzko 33/2003 Legearen Araudi Orokorra onartzen duena. Era berean, sor litezkeen zalantza eta hutsuneak konpontzeko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren oinarriak ezarriko dira, tokiko administrazio den Garaiko Udalari ezar dakiokeen Ondasunen Legeriaren arabera, hau da, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera. Hau guztia apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera ezarriko da, zeinek Toki-araubidearen arloan indarrean dauden Legezko Xedapenei buruzko testu bateratua eta aplika daitezkeen zuzenbide osagarria arautzen dituen. Kontratuaren xedea eta iraungitzeari dagokionean, zuzenbide pribatuko arauen arabera jardungo da, merkataritza arloko zein arlo zibileko Legearen arabera bereziki.

Halaber, indarrean dagoen legearen arabera jardun beharko da, hau da, Euskal Herriko ostalaritza jarduerak arautzen dituen legerian xedatutakoaren arabera eta, bereziki, honako lege hauek hartuko dira kontuan: martxoaren 16ko Euskal Herriko Turismoari buruzko 6/1994 Legea, abenduaren 23ko Turismo-antolamenduari buruzko 16/2008 Legea, abenduaren 24ko 317/1996 Dekretua, turismo-erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak arautzen dituena, eta aplikagarritzat jotako bestelako araudiak.

3- Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 27. artikuluak ezartzen duen arabera, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du kontratu pribatu hau prestatu eta esleitzeko prozedurari lotutako zalantzak argitzeko eskumena.

Arlo zibileko jurisdikzio-ordenak izango du kontratu honen helburu, konplimendu eta iraungipenaren inguruan aldeen artean sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko eskumena.

Garain, 2023ko azaroaren 30ean.